

KUPELAREN ERRAIETAN

Gure amonak kontu-kontari pasatzen zuen eguna, zahartu eta burua galtzen hasi zen arte. Ni oraindik txikia nintzenean sasoi galanta zuen eta hamaika istorio kontatzen zidan oheratu baino lehen. Istorio gehienak aspaldiko marinelen kontuak izan ohi ziren eta ikaragarri gustatzen zitzaidan amona hizketan entzutea. Begiak zabal-zabalik, berari begira egoten nintzen, istorioari adi, arnasari eutsiz.

Amonaren istorio zerrendak ez zeukan amaierarik, baina istorio horien guztien artean Mutriku aldean gertaturiko pasadizo hura gustatzen zitzaidan gehien. Astigarribiako Marinaren istorioa, belaunaldiz-belaunaldi, ahoz-ahoz, gugana iritsitako istorio zirraragarri hura. Askotan entzuna neukan arren, amonari behin eta berriz eskatzen nion konta ziezadan.

1582ko udaberri hartan Mutrikuko portuan etengabekoa zen jendearen joan-etorria. Ez zen gutxiagorako, egun gutxiren buruan itsasoratuko baitzen "Trinidad" itsasontzia, Trinitate, 372 upelbeteko ontzi ikusgarria, herriko ontziola zaharrea Mutriku eta kostaldeko beste hainbat herritako langileen ahaleginaz eraikitako harribitxia.

Garaiko zurginik trebeenak aritu omen ziren ontziaren eraikuntzan lanean eta inguruko basoetako zuhaitzik sendoenen zura baliatu omen zuten zeregin hartarako. Orduko kontalarien kronikak irakurrita, "Trinitate txalupa ikaragarria zen, ederrena. Izan ere, euskaldunak munduko marinelik trebeenak ziren balearen arrantzan eta itsasontzirik onena eraiki zuten Mutrikun, Ternuara arrantzara joateko asmoarekin".

Trinitate itsasontzia uretaratu zuten egunean, Mutrikuko portua jendez gainezka zegoen. Herritar guztiak gerturatu ziren, eta baita kanpotik etorritako makina bat kuxkuxero ere. Astigarribiako Marina neskatila gaztetxea ere bertan zen, Martin eta Inazio bere bi anaiekin, begiak zabal-zabalik, begiraleen txalo artean ontziak ontziolatik uretarako bidea nola hartzen zuen zelatan. Egund gutxi barru, itsasontziak Ternuarako norabidea hartuko zuen, bertan balearen arrastoari jarraitzeko itxaropenez, eta Marinaren ametsa eskifaia hartako kide izatea zen. Neskatila zen, ordea, Marina, eta ez herriko mutil gazte gihartsu eta sasoko haietako bat, bere bi anaien moduan. Baserriko lanetarako aintzat hartzen zuten, baina ezingo zuen sekula halako itsasontzi batean itsasoratu. Gizonezkoei zegokien zeregina zen hura.

Astigarribiako baserrian ez zeukan Marinak aspertzeko astirik: baratzeko lan nekagarriaz gain, Urazandi dorretzeko Arriolatarren sagastia zaintzea ere Marinaren familiaren ardura zen. Sagarrondo beteriko sagasti hura eskualdeko zabal eta oparoena zen. Udazken partean sagarrak bildu, sagarrak zanpatu eta muztio gozoa upeletan gorde ostean, neguaren amaierara arte itxaron ohi zuten sagardoa dastatzeko. Sagardo hura dastatzeko, baina, aukera murrizta zeukaten Marinak eta bere etxekoek: izan ere, itsasoan denbora luzez egongo ziren

marinelen edaria zen sagardo hura, eta Arriolatarrek itsasgizonei saltzen zizkieten upel ia guztiak. Urte hartako upel gehienak, Trinitate ontzian itsasoratuko ziren marinelen zatiz izango ziren.

Gauean, amets egin zuen Marinak, Trinitate ontziko eskifaiako kide bat gehiago bailitzan Ternuarako bidean zihoala, masta nagusiko bela zabalik, olatuen gainean dantzan. Martin eta Inazio bere anaiak ere han zeuden, buru-belarri ontziko lanari emanak, kapitainaren aginduak betez. Oilarrak kukurruku egiterako, ordea, esnatu eta guztia amets bat izan zela ulertu zuen Marinak, sekula beteko ez zen amets ezinezko bat. Gosari garaian halaxe esan zion Marinak aitari:

- Aita, nik ere marinela izan nahi dut, eta Trinitate ontzian Ternuara joan nahi nuke bihar balea arrantzatzerako, Martin, Inazio eta gainerako marinelekin batera, berorrek baimena ematen badit.

Martinek eta Inaziok elkarri begiratu eta barre egin zuten. Aitak bekozkoa okertu eta halaxe erantzun zion Marinari:

- Ezta pentsatu ere. Lan handia zagon baserrian, eta eskulana beharko dinagu Martin eta Inazio itsasoan egongo diren hilabeteetan. Gainera, hi neskatala bat haiz, eta etxe on bateko gazteren batekin ezkontzea dun hire betebeharra, Arriolatarren seme zaharrenarekin, adibidez. Ahaztu itsasoko amets horiek, haserretzea nahi ez badun.

Burua makurtu eta malkoei eutsi zien Marinak, bere ezintasuna ezkututzen saiatuz.

Egun hartan lan handia zegoen baserrian: sagardoz beteriko kupelak gurdian portura garraiatu eta Trinitate ontzira igo beharko baitzituzten, hiruzpalau bidaia eginda. Malkartsua zen Astigarribiatik Mutrikuko porturako bidea, eta egun osoan joan-etorrian ibili ostean, azkeneko kupelak garraiatzen ari zen Marina. Gurdiari tiraka ari zen idi-parea ere oso nekatu zegoen ordurako, lanaldi gogor haren eraginez.

Biharamunean, goizaldean abiatuko zen Trinitate ontzia, itsas bide luzea aurretik. Marinak ez zuen begirik bildu gau osoan, kupelak garraiatzen ibili ostean erabat hustuta zegoen arren. Itsasora abiatzeko ametsa zebilkinson buruan biraka, eskifaia hartako kide bat gehiago izan nahia, baina baita aitaren debeku mezua ere, amets ero harekin etengabe talka egiten zuen mezu irmoa. Ohetik altxatu, leihora hurbildu, eta izarrei begira egon zen une batez. Urrundik iritsitako indar ezezagun batek hartara bultzatuko balu bezala, erabakia hartu zuen Marinak.

Ilunpean, baserriko ataria zeharkatu eta gurdibidean behera abiatu zen Marina, Astigarribiatik Mutriku herrigunerako bidean, ilargiaren argia bilakaturik bere bidelagun bakarra. Tarteka harriren batekin behaztopa egin eta lurrera ere erortzen zen neskatala, bere ibili zoro hartan, iluntasunaren eruz. Herria kontu handiz zeharkatu eta portu aldera jo zuen zuzenean, ostatutik zetozen kantu, oihera eta algara hotsa atzean utziz. Ontziak lotan zeudela zirudien, ur gainean kulunka goxoan, gaueko ordu txiki haieran. Trinitate ontzira inguratu eta kontu handiz arrapalan gora eginaz, ontzira sartzea lortu zuen. Urduri, atzera begiratu zuen inork ikusi ote zuen egiaztatzeko.

Ontzia ederki ezagutzen zuen, upelak garraiatzen aritu zelako ordu batzuk lehenago. Sotoko atea ireki eta, beste hainbat traste eta hornigaien artean upelak zeuden txokora hurbildu zen. Upeletako bat ahal bezala ontziaren karelera hurbildu eta barnean zeraman sagardoa itsasoan hustu zuen kontu handiz. Upel hustua satora itzuli, bera barruan sartu eta itxi egin zuen barrutik ahal izan zuen bezala, arnasa hartu eta kanpoan gertatzen zena zelatatzeke zirrikitu txiki bat utziaz.

Hantxe geratuko zen, ontziko marinelek aurkitu arte behintzat, goseak eta egarriak lehenago akabatzen ez bazuten behintzat... Baina ordurako itsaso zabalean nabigatzen ariko zen Trinitate itsasontzia, eta berandu izango zen buelta erdi hartu eta Mutrikura itzultzeko... Eskifaiako beste kide bat bailitzan balearen arrantzan parte hartzen utzi beharko zioten Marinari ezinbestean, neskatila bazen ere.

Hurrengo goizean Trinitate itsasontziak Mutrikuko portua atzean utzi eta nabigatzeari ekin zion... Marina itsasontziko sotoan gorderik zegoen sagardo upel batean ezkutaturik zihoala...

Amonak kontatzen zidanez, Mutrikuko zaharrenek euren lehenagokoei entzundakoaren arabera, ez zegoen argi nola amaitu zen Marinaren bidaiaria ausart hura. Batzuk esaten zuten itsas bidaiako hirugarren egunean deskubritu zutela marinelek, sagardoa edateko egarriz upel hura zabaldu zutenean. Kareletik itsasora bota omen zuten zenbaiten arabera, Martin eta Inazio bere anaiak neurri hura eragozten saiatu baziren ere. Beste batzuk esaten zuten urte hartako balearen arrantzan oso lagungarri izan zitzaizela Marinaren abilezia... Kontua da Trinitate itsasontzi hura ez zela sekula Mutrikuko portura itzuli. Ternuan betiko hondoratu zen, haitzen bat jota akaso, edo bale zaurituak emandako kolpe latz batek desorekatuta agian. Nork daki...

Gaur egun ez da Arriolatarren Urazandi dorretxearen arrastorik geratzen Mutrikun, baina txikia nintzela amonarekin sarritan joan ohi nintzen inguru hartara paseoan. Etxe handi hartako atearen gainean, erliebe moduko irudi eder bat zegoen ikusgai. Itsasontzi baten irudi ederra zen hura, garaiko *nao* ikusgarri baten irudia. Amonak kontatzen zidanez, Trinitate ontzia zen irudikoa, Marina bere ametsa egi bilakatzerantz bultzatu zuen ontzia. Eta amonak ez zuen inoiz gezurrik esaten!

